



GALINDOKO HUA-N KULIDOEN ETA KIRONOMIDOEN POPULAZIOAK ZUZENEAN KONTROLATZEKO NEURRIAK APLIKATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-BALDINTZA BEREZIEN PLEGUAREN KARATULA. ESPEDIENTE-ZK.: 3323.

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☐ Irekia ☐ Irekia eta sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☒ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidente ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Koldo Lekue Marcos
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	www.contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono- zk.:94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.com www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: Kontratuaren xedea da Galindoko HUAN kulidoen eta kironomidoen populazioak zuzenean kontrolatzeko neurriak aplikatzeko zerbitzua, larbizidak hutsik edo ur geldiarekin dauden biltegi eta kanaletan aldizka aplikatzea barne, bai eta bigarren mailako dekantazioko jalkitze-tangetan ere. 2.- Bete beharreko premiak: Galindoko HUAren Ustiapen Zuzendariordetzaren ardurapean dago Galindoko HUAN eltxoen populazioak zuzenean kontrolatzeko lanak egitea. Bestalde, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak konpromisoa hartu du Sestaoko Udalarekin Galindoko HUAN sortutako eltxoek bizilagunei eragindako eragozpenak gutxitzeko eskura dituen baliabide guztiak jartzeko. 3.- Lotetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Lotetan banatu ez izanaren justifikazioa. Galindoko HUAN eltxoen populazioak zuzenean kontrolatzeko neurriak aplikatzeko zerbitzua hornitzaile bakar batek gauzatu behar du; izan ere, horrek aukera ematen du larbizida biologikoa aplikatzeko hala behar duten instalazio-eremu guztietan, eta, ondorioz, eltxo helduak eta eltxo heldugabeak ekoizpenetik kentzea lortzen da. Bestalde, zenbait hornitzailek zerbitzu hori koordinatzen badute, jarduketa atzeratu egin liteke, eta, udan populazioak gora egiten badu, eltxoen populazioak gora egingo du, eta, beraz, eragina izango du inguruko populazio-guneetan, bai eta instalazioan bertan ere.
4.- CPV: 90922000-6 Izurrite-kontrolerako zerbitzua.
5.- Aldagaiak edo alternatibak onartzea: ☐ BAI ☒ EZ
6.- Izaera juridikoa: Administratiboa ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua	HOGITA BEDERATZI MILA EURO (29.000,00 €)
---------------------------	--



C.- KONTRATUAREN PREZIOA	
(BEZik gabe)	BEZik GABE
2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 58.000,00 € Loteak: ☐ BAI ☒ EZ	
3.- Prezioa zehazteko sistema: ☐ Honenbesteko prezioa ☒ Unitateko prezioak	
4.- Urteko kopuruak eta aurrekontu-kontsignazioa: Hauek dira kontratuaren aurrekontuaren urteko zenbatekoak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa: 227.99.169.22 2027. urtea 14.000,00 euro, BEZik gabe 2028. urtea 15.000,00 euro, BEZik gabe	
5.- Prezioak berrikustea: ☐ BAI ☒ Ez	
6.-Kanpoko funtsekin finantzatzea: ☐ BAI ☒ EZ	
7.- Ordaintzeko modua: Arrunta, hileko ziurtagiri bidez.	
8.- Ordainketak kontura: Ez da aplikatu behar	

D.- KONTRATUAREN EPEA
1.-Iraupen osoa URTEBETE (1).
2.-Epe partzialak. ☐ BAI ☒ EZ
3.- Luzapena ☒ BAI ☐ EZ Urte bateko luzapen bat (1).
4.- Berme-epea: Kontratuaren indarraldia
5.- Kontratua gauzatzeko tokia: Galindoko HUA
6.- Partzialki jaso daitezkeen lanak ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK
Ez da eskatzen

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA
Ez da eskatzen

G.- KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA
Ez da eskatzen

H.- LIZITATZAILEEK ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTUAK
1.- GUTUN-AZAL BAKARRA. Erantzukizunpeko adierazpena eta automatikoki kuantifikatzeko irizpideak.



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEAK

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailerak edo bere ordezkariak sinatu beharko du eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da l. eranskinetako ereduari jarraikiz. Eskaintzako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa salbu.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

a) Prezioen zerrenda.

Deskribapena	Prezio unitarioa eurotan
1- LARBIZIDA poltsetan hornitzea	
2- LARBIZIDAREN aldizkako aplikazioa	

b) Kontratuaren aurrekontua.

Deskribapena	Unitate-kop.	Prezio unitarioa eurotan	Euroen gutztizko partziala
1- LARBIZIDA poltsetan hornitzea	1.500		
2- LARBIZIDAREN aldizkako aplikazioa	7		
Kontratuaren exekuzioa, guztira			

I.- ESKAINTZAK EGITEKO LEKUA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak egiteko epea: Kontratatzaileraren profilean adierazitakoa
2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik administrazio-klausula partikularren agiriaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):
3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ
Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

Ez da aplikatu behar

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Kontratua prozedura ireki bidez adjudikatuko zaio preziorik baxuena duen eskaintza aurkezten duen lizitatzailerari. Izan ere, egin beharreko horniduraren ezaugarriak direla-eta, adjudikatzeko irizpide erabakitzaile bakarra da.

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak egiteko epean indarrean daudenak:

- a) Enpresak desgaitasuna duten edota gizarte-bazterketa egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa edukitzea; berdinketaren kasuan, lehentasuna izango dute plantillan desgaitasuna duten langile finko gehiago dutenek edota gizarteratze-egoeran dauden langileen kopuru handiagoa dutenek.
b) Enpresako langileen artean aldi baterako kontratuen ehuneko txikiagoa izatea.



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- c) Enpresako langileen artean emakume enplegatuen ehuneko handiagoa izatea.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa hautsi ez bada.

3.- Ohi baino txikiagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat ohi baino baxuagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzaille bakarra izanik, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino 25 ehuneko-puntu txikiagoa denean.
- Bi lizitatzaille izanik, beste eskaintzaren aldean 20 ehuneko-puntu txikiagoa denean.
- Hiru lizitatzaille daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoak direnak. Hala eta guztiz ere, alde batera utziko da batez bestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena, batez bestekoa kontuan hartuta 10 ehuneko-puntu baino handiagoa bada, eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurriz kanpokotzat joko da aldea 25 ehuneko-puntu baino handiagoa bada.
- Lau lizitatzaille edo gehiago daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino txikiagoak direnak. Dena den, horien artean batezbestekoa baino 10 ehuneko-puntu handiagoak diren eskaintzak badaude, batezbesteko bat kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarra izango da ausarkeria-atalase berri bat ezartzea, eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria hiru eskaintza merkeenak erabiliz kalkulatu da.

Talde berekoak diren enpresek eskaintzak aurkeztu dituztenean, txikiena hartuko da kontuan, ustezko anormaltasuna dakarten eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, kontuan hartu gabe eskaintza bakarka aurkeztu duten edo taldearekin zerikusirik ez duen beste enpresa batekin edo batzuekin batera, haiekin aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez egin badute.

4.- Lizitatzailleak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxieneko atalasea:

Ez da aplikatu behar.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak

M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK

Preskripzio tekniko partikularren pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.

Ordaindu beharreko zenbatekoen % 15eko zigorra ezarriko da arrazoi justifikaturik gabe atzerapenak gertatzen direnean eta hainbat lan entregatzeke daudenean.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Lizitatzailleak laneko arriskuengatik erantzukizun-asegurua baduela ziurtatzen duen egiaztagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikatu behar

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

BAI

P.- SUBROGAZIOA

Ez da aplikatu behar.



Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☐ BAI ☒ EZ

R- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

Lizitatzaleek Eusko Jaurlaritzaren Lizitatzaleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta egon beharko dute.

Kontratistaren ordezkaria

Kontratuaren adjudikaziodunak kontratistaren ordezkari bat izendatuko du, eta adjudikazioduna BBUPrekin hitz egiteaz eta bere lantaldea zuzentzeaz arduratuko da.

Halaber, lanen garapenean sortzen diren zalantzak argitzeko kontsultak egingo ditu.